

**2001EKO MARTXOAREN 15EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIKO AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hamabosta

HILABETEA: Martxo

URTEA: Bi mila eta bat

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Jon Jauregi Bereziartua jauna

BILDUAK: Ana Isabel Asla Egialde
Patxi Plazaola Muguruza
Jon Berbel Aiestaran
Pello Garaialde Goikoetxea
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Leire Lopez Zurutuza
Jose Luis Elorza Mugica
M^a Carmen Gomez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Juan Outeiral Fernandez

ETORRI GABEAK: Jose Antonio Guirado Tristan
Arantza Aseginolaza Azkargorta
Josi Insausti Mujika
Aimar Larrea Garin
Julio Herreros Serna Jorge

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1- AURREKO AKTA

2000ko abenduaren 21eko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2- ARAU SUBSIDIARIOAK. 22. Hako Arau Subsidiarioen aldaketa:

Alkate jaunak Patxi Plazaola hirigintza-batzordeburuari hitza eman eta honek hirigintza-batzordearen proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen 22 Hirigintza Arearekiko (22HA) aldaketaren Aurrerakinari buruz 2000ko azaroaren 21eko hirigintza batzordeak egindako proposamenaren ondorioz Planeamendu Erregelamenduaren 125. artikulua dioena betez, aipatu dokumentua jendaurrean jarri zen, 2000ko abenduaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2000ko abenduaren 3ko Euskaldunon Egunkarian eta 2000ko abenduaren 5eko Diario Vasco-n iragarkiak 30 eguneko epean argitaratuz.

Legez ezarritako epean aurkeztu zen iradokizun bakarra, Luis Tarrero Balbas jaunak “Red Nacional de los Ferrocarriles”en ordeztutakoa izan zen.

2001eko otsailaren 17an, idazle-ekipoak iradokizunari buruz, txosten tekniko-juridikoa eman zuen.

Horren ondorioz, Planeamenduko Erregelamenduaren 125,3 artikulua xedatutakoa betez, Udalbatza Osoari ondorengo proposamena egiten zaio:

“Lehenik. Luis Tarrero Balbas jaunak “Red Nacional de los Ferrocarriles”en ordeztutako iradokizuna, txosten tekniko-juridikoaren arabera ebaztea, hau da:

“Iradokizunaren edukia.-

1.- Alde batetik, dokumentuan jasota dauden mugek, herri-jabariko lursailak, zerbitzu-zorrak dituztenak eta burdinbideak erasandako gunean kokatutakoak dituztela aipatzen da eta xedatu behar den ordenamenduak, Garraioen Ordenamendu Legearen mugak eta bere Araudiarenak aurreikusi egin beharko dituela adierazten. Jarraian, aipatutako arauetatik ondorioztatutako hirigintza-arauak proposatzen ditu.

2.- Aipatutako loturak dituzten lursailetan garatu nahi diren jarduerak Konpainiaren baimena aldeztu aurretik eta espresuki emana behar dutela azpimarratu ondoren, beren Ondasun-inbentarioaren arabera, mugape horretako azaleraren barruan lursail batzuen jabe direla esaten auzitzen du.

Txosten tekniko-juridikoa.

1.- Txosten hau, Hirigintza Plangintzarako Araudiaren 125. artikuluan xedatuaren arabera egin da.

2.- RENFEk ekarritako planoen arabera, eta zuhurtzia osoz ez baitituzte erreferentzia egokiak ekarri, Aurrerakinan adierazitako mugekin gainjarpena egin da, eta aztertu ondoren, herri-jabariko azalera txiki bat esparru horren mugape barruan sartu dela ondorioztatu da, honekin batera doan planoan adierazita dagoenez.

Egiazta daitekeenez, erasana izan litekeen gutxienekoa izanik eta eragin handirik ez duenez, Aurrerakinaren mugak jabetza pribatua denari doitzea proposatzen da, nahiz eta horrekin RENFEren herri-jabariko titulartasuna bere planoetan agertzen dena dela aitortzeko asmorik ez izan eta uste dugu berariazkoa definitzeko Konpainiak eta jabe pribatuak mugaketa bat formaldu behar luketela eta mugaketa hori garapeneko plangintza-dokumentuari atxiki behar litzaikeela. Horretarako, Egitasmo Partzialak arloaren mugak berriro doitzeko ahalbidea xedatzea proposatzen dugu, interesatuen arteko jabetza-definizioetatik ateratzen denaren arabera.

3.- Azkenik, honekin batera doan arau-proposamena sartzeko iradokizunari dagokionez, berori hirigintza-dokumentua izanik, gai horretako zehaztasunak bertan azaldu behar dutela uste dugu. Erasandako Sektoreetako Administrazioek, eskaerak fiskalizatzeko unean ezarriko dituzte beren baldintzak.

Horren aurkakoak, ur- edo errepide-gaietako arauak ere sartzera behartuko gintuzke, arlo horietan ere badaude erasanak eta.

Bigarren. Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen 22. Hirigintza Arearekiko aldaketa lantzeko behar diren irizpide eta irtenbideak onartzea.

Hirugarren. Erabaki honen berri idazle-ekipoari ematea, hasierako onepenerako dokumentua presta dezan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da hirigintza-batzordeak egindako proposamena.

3- XEHETASUNEZKO AZTERLANA

a- 23. HAKo A lursaileko Xehetasunezko Azterlanari behin betiko onespenera ematea.

Alkate jaunak Patxi Plazaola hirigintza-batzordeburuari hitza eman eta honek hirigintza-batzordearen proposamenaren berri eman du:

“2000ko abenduaren 21eko Alkatetzako Ebazpenaren bidez 23. HAKo A partzelari buruzko Xehetasunezko Azterlanari hasierako onespenera eman zitzaion eta espedientea jendaurrean jarri zen 2001eko urtarrilaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2000ko abenduaren 27ko Diario Vasco-n eta 2000ko abenduaren 23ko “Euskaldunon Egunkarian” iragarkiak argitaratuz eta hamabost eguneko epean ez da inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu.

Horren ondorioz, hirigintza-batzordeak, 23. HAKo A lursaileko Xehetasunezko Azterlanari behin betiko onespenera ematea proposatu du.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

b- 3. HAKo Xehetasunezko Azterlanaren hasierako onespenerari aurkeztutako alegazioen ebazpena eta behin betiko onestea.

Alkate jaunak Patxi Plazaola hirigintza-batzordeburuari hitza eman dio eta honek hirigintza-batzordearen proposamenaren berri eman du:

“Beasaingo 3. HAKo 1. EUko Xehetasunezko Azterlanari 2000ko abenduaren 26ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez hasierako onespenera eman zitzaion eta espedientea jendaurrean jarri zen hamabost eguneko epean 2001eko urtarrilaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2001eko urtarrilaren 11ko Diario Vasco-n eta 2001eko abenduaren 28ko “Euskaldunon Egunkarian” iragarkiak argitaratuz. Epe horretan, hain zuzen ere, 2001eko urtarrilaren 15eko datarekin Pedro Igartua Polo jaunak alegazio bat aurkeztu du.

Udal-arkitektoak 2001eko otsailaren 14an, alegazioari buruzko txosten teknikoa eman du.

Horren ondorioz, hirigintza-batzordeak Udalbatza osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

“**Lehenik**. Pedro Igartua Polo jaunak aurkeztutako alegazioa udal-teknikariak egindako txostenaren arabera ebaztea, hau da:

“SARRERA. AURREKARIAK.

Pedro Igartua Polo jn.ak, 2001eko otsailaren 15eko datarekin idazki bat aurkeztu zuen udaletxe honetan, Beasaingo plangintzako arau subsidiarioen 3. HA-ko 1. EUko xehetasunezko azterlanaz, eta bertan, berari oztoporik ez dio jartzen, baldin eta bere garaian hitzez adostu zituzten akordioak errespetatzen badira. Akordio horiek, ondoren aipatzen dira eta xehetasunezko azterlanean betetzeko biderik ikusten ez bada, berak alegazio moduan aurkezten ditu:

- a) Bere jabetzako finkaren mugak osotasunean errespetatzea.
- b) Bere finkaren mugako horma oso-osorik itsua izatea.
- c) Eraikitzailea, bere fatxadaren konponketa-gastuen kargu egitea, baldin eta eraisketa egitean beharrezkoa gertatzen bada.
- d) Bere finkaren atzeko aldean dagoen pasagunea errespetatzea.

TXOSTEN TEKNIKOA

Idazkiaren edukia ikusita, puntuetako bakoitzari erantzuna emanaz, ondorengo adierazi behar dut:

- a) Bere jabegoaren muga edozein kasutan ere errespetatu beharra dago, izan ere, hori, xehetasunezko azterlanak berak jasotako zehaztasuna baita eta jardunaren arloak, A eta B lursailak harrapatzen ditu C lursaila (alegaziogilearen jabetzako) kanpoan utziz.
- b) Eraikin berriaren fatxada, bere jabetzaren muga-mugan egotean, argi- eta bista-zorra tarteko, egun indarrean dagoen legeriak dioenaren arabera, ez du inolako zulorik irekitzerik izango. Edozein modutan ere, puntu honek eraikin berriaren eraikuntza-proiektua erasango luke eta inolaz ere ez xehetasunezko azterlana.

- c) Eraisketa egitean, erakina bere jabetzakoarenari itsatsia edo erantsia denez, eragileari egin lezakeen edozein kalte ere konpontzea eskatuko zaio. Nolanahi ere, puntu honek eraisketa-proiektua erasango luke eta ez xehetasunezko azterlana.
- d) Bere finkaren atzeko aldeko pasagunea, xehetasunezko azterlanak berak dituen ebazpenek bermatuta dago, izan ere, bertan adierazten baita bere jabetzaren eta eraikin berriaren artean gelditzen den lursaila, udalari lagako zaiola eta herri-lur izatera pasatuko dela.

Beraz, idazki honek xehetasunezko azterlana ezertan ere ez duela erasaten kontuan hartuta, xehetasunezko azterlanak ezarritako bidean bere izapidaketa jarrai dezakeela deritzot.”

Bigarren. 3. HAKo Xehetasunezko Azterlanari behin betiko onespena ematea eta interesatuei erabaki ho rren berri ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da hirigintza-batzordearen proposamena.

4- OBRAK KONTRATATZEA. 18. HAKo Futbol-zelaiko obren adjudikazioa.

Alkate jaunak Patxi Plazaola hirigintza batzordeburuari hitza eman eta honek honela dio:

“Futbol-zelaiko obrak kontratatzeko lehiaketa egin ondoren, kartazal itxiak aurkezteko epean bakarrik lizitatzailer bat aurkeztu da, hain zuzen ere, “Construcciones Iruña S.A.”. Obrak egikaritzeko epea sei hilabetekoa izango da, berak horrela proposatu duelako, ekainaren 1etik zenbatzen hasita. Ordurarte betelanak amaitu behar baitira. Horren ondorioz eta enpresak aurkeztutako eskaintza zuzena dela kontuan izanik, 2001eko otsailaren 21eko txosten teknikoaren arabera, Udalbatza Osoari ondorengoa proposatzen zaio:

CONSTRUCCIONES IRUÑA S.A.ri, 18. Hirigintza Arean futbol-zelaia egiteko obrak , 215.672.530 pezetatan (BEZ barne) (1.296.218,01 euro) adjudikatzea, egikaritze-epea ekainaren 1etik zenbatzen hasita sei hilabetekoa izanik.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Jorge Outeiral (PP) jaunak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: "Abstenitu egingo gara, gai honetaz beste Udaltzaren Osoko Bilkura batzuetan izandako jarrerarekiko koherentzia izateagatik."

EHko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ/PNV-EA, E H, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 3 (PSE-EE/PSOE)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

5- SOZIJETATE ANONIMOA

Alkate jaunak Patxi Plazaola hirigintza batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

"Gaia: Jarduera ekonomikoari merkatu libreko erregimenean ekitea.

I.- Udalak, kapital osoa Udalarena den merkataritza-sozietatearen bidez, **babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko eta eraikitze**ko eta **zoru industrial**a sustatzeko eta kudeatzeko interesa du.

II.- Aipatutako jarduera ekonomikoak prestatzeko zuzeneko kudeaketa honen bidez egiteko komenigarritasuna, aukera eta herri-interesa, honela kreditatuta gelditzen da:

- *Babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea eta eraikitzea.* Etxebizitza lehen mailako beharra izanik eta merkatu librean daudenak oso garestiak direla kontuan izanik, argi dago babes ofizialeko etxebizitzaren eskaera badagoela. Eskaera horri aurre egiteko, Udala lurzorua eskuratzen joan da, babestutako etxebizitzak eraikitze

- *Zoru industrial*a sustatzea eta kudeatzea. Sozietateak edo baltzuak, bere gain hartuko luke, gaur egun indarrean den legeriak gomendatutako lurzoruaren sustatzaile-eginkizuna. Eginkizun hori, gizarte-intereseko erabilpentzat hartuta dago eta udalerraren hirigintza- eta lurralde-garapena gauzatzeko funtsezkoa gertatzen da. (Ekainaren 29ko Lurzoruaren Herri Ondarearen 20/1998 Legea).

Era pribatua erabiliz, Korporazio Lokalak ondorengo lortzen du:

1- Aurrekontu-zurruntasuna, eta aldi berean, administrazio-kontratazioa eta pertsona-hautaketa salbuestea. Salbuespena, ordea, ez da bere osotasunean ulertu behar. Sozietate edo baltzu pribatuak, zuzenbide pribatuz eraentzen diren arren, beren kontratuetako jarduera publizitate eta jende ororekiko irekiak izan behar dute. Pertsonalaren hautaketan, berdintasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioekiko egokitu behar dute eta kontabilitateari dagokionean, herri-kontabilitateko jardueraren menpe daude, nahiz eta hori ez oztopo izan Merkataritzako Kodearen xedapenei eta gainerako merkataritzako legeriari nahiz enpresentzat indarrean dagoen Kontabilitate Plan Orokorrari egokitzeko.

2- Kudeaketa arindu eta jarritako helburuak lortzeko bulkada handiagoa ematea. Helburu horiek noski herri-interesak dira eta biztanleen onerako izango dira, jarduera guztiak ere Beasaingo udal-barrutiaren barruan burutuko direnez.

III.- Merkataritzako sozietate anonimoa edota erantzukizun mugatua duena eratzeak, Erregimen Lokaleko Testu Bateratuaren 97. artikuluan araututa dagoen izapide juridiko-administratibo berezia behar du:

A) Entitate Lokalek jarduera ekonomikoak burutzeko, ondorengoak behar da:

a) Udalbatzaren hasierako erabakia, aldez aurretik, **Udalbatzako kidez eta teknikoz osatutako batzordea** izendatuta.

b) Batzorde horrek, gauzatu behar duen ekonomi jardueraren hainbat arlori buruz, **txostena** egin behar du.

c) Udalbatza Osoak txosten hori aintzakotzat hartu ondoren, **jendaurrean** jarri behar du, **gutxienez ere hogeita hamar eguneko epean**, partikularrek eta Erakundeek erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

d) Udalbatza Osoak, proiektua behin betiko onetsi.

e) Merkataritza-sozietatea edo baltzua eratu.

Horren ondorioz, hirigintza-batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo ERABAKI PROPOSAMENA egiten dio:

Lehenik. Ondorengo zinegotziek eta teknikariek osatutako batzordea izendatzea:

Zinegotziak: Jon Jauregi, Patxi Plazaola, Pello Garaialde, Andoni Antxia Pablo Parra eta Julio Herreros.

Teknikariak: Itziar Arostegi, Jose Miguel Toledo, Jose Miguel Ruiz de Galarreta eta Agustín Perez de Nanclares.

Bigarren. Merkataritza-sozietatea eratzeko prozedurari hasiera ematea, prestatu behar den jarduera ekonomikoaren, hau da, babes ofizialeko etxebizitzaren sustapen eta eraikuntzaren nahiz lurzoru industrialaren sustapen eta kudeaketaren, gizarte-arloaz, arlo juridikoaz, teknikoaz eta finantzatzekoaz batzorde horri, txostena egiteko agindua emanez.

Txosten horretan, legeak aurreikusitakoen artean, jarduera kudeatzeko era zehatzaz gain, jardueraren prestakuntza eteteko kasuen aipamena ere egin beharko da.

Aldi berean, zerbitzu-prezioen proiektu lagungarri bat izan beharko du eta prezio horiek finkatzeko, kontuan hartu beharko da, zilegi dela bere aurrekontuko sarrera moduan, herri-erakundearen beharrizan orokorrei egozgarri zaizkien irabaziak lortzea, gordailu-fondo eta amortizazioak eratzearen kalterik gabe noski.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Orokorrean ados gaude bai proposamenarekin eta bai eman den pausoarekin. Horrelako zerbait guk proposatu genuen aurreko urteko eztabaidan. Hala eta guztiz ere, beste bi elemendu gehitu nahi genizkioke proposamen honi. Aurretik hitz egin dugu eta ez litzateke arazorik egongo. Aipatzen diren bi helburu horietaz gain, alokatuta dauden edo behintzat udalarenak diren etxebizitzaren kudeaketa ere kontuan hartu beharko litzateke.

Bestalde guk proposatzen dugu, eratu behar den batzorde horretan arlo politikoan, gizarte-ongizateko batzordeburua egotea, hau da, Ana Asla eta teknikoaren artean, Karmele Elola gizarte-ongizateko teknikaria. Sozietate hori bultzatzeko garaian, hirigintzako elementuak daude, baina sozietate horren helburuetako bat politika soziala egitea izango denez, etxebizitzaren ikuspuntutik, interesgarria ikusten dugu gizarte-ongizatekoek batzorde horretan parte hartzea.”

Andoni Antxia (EH) jaunak: “Guk ere helburuek ontzat ematen ditugu. Guk ere pentsatzen dugu lehenengo puntu horretan, babes ofizialeko

etxebizitzak, bai salmentarako bai alokatzeko, denak barne egon beharko liratekela. Beraz logikoa iruditzen zaigu, gizarte-ongizateak ere batzorde horretan ordezkaritza izatea.”

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Nik bi gauza bakarrik. Hauteskudeetarako aurkeztutako gure programan, legealdi honetan aurrera eramateko helburuak zehaztu ziren. Zuzenean egiteko ez direnak baizik eta aztertzekoak, hauek dira: kirol inguruko azpiegituren azterketa, orain eztabaidatzen ari garena, Igartza inguruko egoera guztiari aurre egiteko lan-taldea sortzea eta azkenik, udaletxe honen ordenazioa eta etorkizunerako erabilera definituko duen proiektua. Horren inguruan esan, babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko politika ez dela honekin hasten, baina honek bultzakada garrantzitsua emango dio, zeren eta horretarako jarriko diren baliabideak egingo dutena zera da, hori askoz gehiago bultzatu. Legeak agintzen du prozedura hemen aipatzen dena izan behar duela eta talde bat sortu behar dela. Ongizateko batzordeburua bertan egotea ez dugu proposatu, nahiz eta horretarako ez izan inolako oztoporik, pentsatzen genuelako gazteri batzordeburuak ere zer esana izango zuela. Taldea gehiegi ez handitzeko proposatu genuen hirigintza-batzordean parte hartzen dutenekin osatzea. Dena dela arazoa ez da orain sortu, gero sortuko da. Izan ere legeak esaten du gure tamainako herrietan sozietate horretako kontseilua gehienera ere bost pertsonak osatuko dutela. Horrek esan nahi du kontseilu horretan ez dutela arlo guztiek egoterik izango. Kontseilu hori arduratuko da kudeaketaz eta planifikazioaz eta nahitanahiez, ongizate-, hirigintza- eta gazteri arloak aukera izango dute beren ekarpenak egiteko. Hala ere ez gaude itxita eta gure aldetik behintzat Ana Asla eta Karmele Elola talde horretan egoteko ez dago arazorik.”

Besterik gabe, bozketa egin da eta aho batez onartu da hirigintza-batzordearen proposamena, zera adieraziz, alegia, eratzen den batzordean, Ana Asla, gizarte-ongizateko batzordeburuak eta Karmele Elolak gizarte-ongizateko teknikariak ere parte hartuko dutela.

Une honetan sartu da batzarraldira, Julio Herreros PPko ordezkaria.

6- UDAL-INBENTARIOA

Alkate jaunak, hazienda-batzordeko proposamenaren berri eman du:

2000ko abenduaren 31ko datarekin egindako inbentarioaren zuzenketa onartzea proposatzen dio hazienda-batzordeak Udalbatzari. Ondasunen inbentarioaren balioa honako hau da:

ONDASUNEN INBENTARIOA ETA ERREGISTROAREN ZERRENDA

UDALA

	Erre.Histo.Kos	Erre.Meta.Amo.	Kontable garbia
ONDASUN HIGIEZINAK	<u>3.546.635.287</u>	<u>304.705.732</u>	<u>3.241.929.555</u>
ERAIKUNTZAK	1.176.609.121	256.095.488	920.513.633
LURSAILAK	441.977.449	0	441.977.449
JOLASTOKIAK	484.502.777	0	484.502.777
BIDEAK	1.345.196.074	0	1.345.196.074
LANDA-FINKAK	10.997.247	0	10.997.247
AZPIEGITURA	87.352.619	48.610.244	38.742.375
ERRENTA ESKUBIDEAK	<u>30.300.000</u>	<u>0</u>	<u>30.300.000</u>
BALORE HIGIKORRAK	<u>7.249.000</u>	<u>0</u>	<u>7.249.000</u>
IBILGAILUAK	<u>10.869.457</u>	<u>9.033.626</u>	<u>1.835.831</u>
ALTZARIAK	<u>209.587.776</u>	<u>107.028.259</u>	<u>102.589.517</u>
ONDASUN ETA ESKUBIDE BIHUR.	<u>58.727.315</u>	<u>0</u>	<u>58.727.315</u>
GUZTIRA	<u>3.863.368.835</u>	<u>420.767.617</u>	<u>3.442.631.218</u>
ERAIKINAK ERABILPEN-LAGAPENEAN	<u>46.502.022</u>	<u>0</u>	<u>46.502.022</u>
	<u>3.909.870.857</u>	<u>420.767.617</u>	<u>3.489.133.240</u>

ONDASUNEN INBENTARIOA ETA ERREGISTROAREN ZERRENDA KIROLDEGIA

	Erre.Histo.Kos	Erre.Meta.Amo.	Kontablea garbia
ONDASUN HIGIEZINAK	<u>219.714.625</u>	<u>124.009.407</u>	<u>95.705.217</u>
ALTZARIAK	<u>74.918.312</u>	<u>38.260.844</u>	<u>36.657.467</u>
GUZTIRA	<u>294.632.937</u>	<u>162.270.251</u>	<u>132.362.684</u>

ONDASUNEN INBENTARIOA ETA ERREGISTROAREN ZERRENDA
MUSIKA-ESKOLA

	Erre.Histo.Kos	Erre.Meta.Amo.	Kontable garbia
ALTZARIAK	<u>8.572.162</u>	<u>6.584.712</u>	<u>1.987.450</u>
GUZTIRA	<u>8.572.162</u>	<u>6.584.712</u>	<u>1.987.450</u>

ONDASUNEN INBENTARIOA ETA ERREGISTROAREN ZERRENDA
EUSKALTEGIA

	Erre.Histo.Kos	Erre.Meta.Amo.	Kontable garbia
ALTZARIAK	<u>3.092.178</u>	<u>2.345.492</u>	<u>746.686</u>
GUZTIRA	<u>3.092.178</u>	<u>2.345.492</u>	<u>746.686</u>

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

7- BIZTANLEEN UDAL-ERROLDA

Alkate jaunak, biztanleen udal-errolaren urteroko berrikusketaren berri eman du. 2001eko urtarrilaren 1eko datarekin biztanleria, 12.227koa da. 2000ko urtarrilaren 1etik, 2001eko urtarrilaren 1era emandako altak, 383 eta bajak 342. Lehengo urtetik hona 41 biztanle gehiago daude eta aurtengo urteko hasierako bi hilabeteetan kopuru berdineko igokada izan da.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek izan dira:

PP eta PSE-EE/PSOeko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Andoni Antxia EHko ordezkariak, biztanleria lehengo urtetik hona eta bi hilabete hauetan ere, zergatik igo den galdetu du.

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: "Azterketa egin genuenean konturatu ginen Donostian egon dela etxebizitzaren izugarriko promozioa eta jendea han erroldatuta dago nahiz eta hemen bizi. Gure susmoa da Beasainen hamahiru mila biztanle gaudela. Inguruko herriek, gehienbat Idiazabalak eta Olaberriak eraman duten kalitatezko etxebizitza-politika dela eta, eragin du Beasaindik herri horietara jendea joatea, baina horiek ia bete dira. Bestalde, Lazkao eta Ordiziako udalek ere guk baino lehenago sustatu zituzten babes ofizialeko etxeak eta jendea herri horietan erroldatu da zozketan sartzeko. Hori bukatu da, baina hortik kanpo aipatu behar da jaiotze-tasa aurten dexente igo dela eta

Beasainen babes ofizialeko etxebizitzak eraiki behar direla ikusita, berriro ere jendea bueltan dator, aukerarik ez galtzeko."

Horren ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da udal-errolaren 2001. urteko berrikusketa.

8- DIRULAGUNTZAK

Alkate jaunak, Ana Asla gizarte-ongizateko batzordeburuari hitza eman dio eta honek proposamenaren berri eman du:

"Sanitate- eta gizarte-ongizate batzordeak 2001-02-21ean egindako bilkuran itsatsirik doazen proiektuetarako gazteentzako laguntzak emateko oinarriak onartu zituen eta era berean Udalaren Osoko Bilkurara zuzentzea erabaki zuen bere onespina lortzeko. Programa honen helburua honako hau da: garatze bidean ari diren herrietan egiten diren lankidetzajardueretan Beasaingo gazteek parte har dezaten laguntzea, elkartasun-balorea indartu eta aldi berean gure herriari lurralde horien egoera gazteen bidez ezagutarazteko.

Oinarriak iazkoen berdina dira. Ez ditugu aldatu. Bakarrik esan, diruaren kopurua ez dela adierazten, aurreko oraindik aurrekontua onartu gabe dagoelako."

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

9- GKE

Alkate jaunak, Ana Asla gizarteongizateko batzordeburuari hitza eman dio eta honek proposamenaren berri eman du:

"Sanitate- eta gizarte-ongizate batzordeak 2001-02-21ean egindako bilkuran itsasirik doazen proiektuetarako finantzaketa-oinarriak onartu ditu eta era berean Udalaren Osoko bilkurara zuzentzea erabaki du bere onespina lortzeko. Oinarri horien xedea zera da, alegia, hgeo-hemisferioko herri txiroetako biztanle-, gizarte- eta ekonomi egoera garatu eta hobetzera bideratzeko jarduerak aurrera eramatea, gobernuz kanpoko erakundeekin lankidetzaprogramak antolatze eta garatzeko diru-laguntzak emateari buruzko erregimenak finkatzea. Oinarriak iazko berdina dira, baina laguntza hauek ematerakoan atal berri bat gehitu dugu, hau da, *Indian eta El Salvadorren urte-hasierako lurrikarek utzitako kalteei aurre egiteko, bertan berreraikitze-lanak egiteko diren proiektuak izenekoa.*

Bestalde lehen bezalaxe, ez dugu diruaren kopurua zehaztu aurrekontua onartu gabe dago eta.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

10- DOHAINTZA

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Kultura-batzordetik datorren proposamena da hau. Gamarra jaunaren familiak, berak zuen fondo bibliografikoa Udalari laga nahi dio eta horren ondorioz proposatzen dena da, lagapen hori onartzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

11- MOZIOA. Lierni Armendaritzen atxilotetari buruzko mozioa.

Alkate jaunak, Andoni Antxia, EHko ordezkariaari hitza eman eta honek honela dio:

“Denbora pasatu den arren aurkeztu zenetik, horrelako gauzek eguneratuta jarraitzen dute. Mozioak honela dio:

“Lierni Armendaritzen atxiloteta Euskal Herriak bizi duen konpontzeke dagoen gatazka politikoaren ondorio zuzentzat jotzen dugu.

Egungo gatazkaren konponbiderako euskal gizartearen hitza onartzea eta errespetatzea funtsezkoa da, aniztasunean oinarrituz eta inongo mugarik gabe jokatzuz. Alde guztiek onartu beharreko erabakia espainiar eta frantziar estatuek barne.

Neurri polizialek argi erakutsi dute, konponketa izan gabe, gatazka politikoaren konponbidera bideratutako behin betiko prozesu baterako oztopo direla.

Gure auzokide den Lierni Armendaritzek lege antiterroristapean egoniko 120 orduko inkomunikazio-epean jasan dituen torturak salatzen ditugu. Eta bide batez Madrilgo Entzutegi Nazionalak honetan guztian duen ardura azpimarratu nahi dugu.

Beasaingo biztanle ororen giza eskubideekiko errespetuaren arduradun gisa eta horiek urratzen dituzten arrazoiak ezabatzeko urratsa bideratzeko arduradun legez, UDAL OSOKO BILKURAK ZERA ERABAKITZEN DU:

- Gure auzokide den Lierni Armendaritzen kontra torturak gauzatu dituzten agenteak auziperatzeko tramiteak bere gain har ditzala; herri honetako udala herri-akusazio bezala azalduz. Eta honetaz gainera, torturatua izan den Lierni Armendaritz herritarrari mota guztietako laguntza (juridikoa, psikologikoa) bermatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros (PP) jaunak: “Os voy a recordar que estamos en un Estado de Derecho, donde rige la división de poderes y estos son el ejecutivo, el legislativo y el judicial. Los que creemos en la democracia y la practicamos, dejamos que la justicia trabaje con plena libertad. Con la moción que habeis presentado se os tenía que haber caído la cara de vergüenza, si es que la teneis, cosa que lo dudo. Mencionais el respeto de los derechos humanos de todos los habitantes de Beasain. ¿Dónde creéis que vivo yo?. Me imagino, o sabeis que la bomba que explotó la madrugada del viernes no era para Correos. Pensar para quien podía ser. ¡Ya está bien de cinismo!”

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Juliori entzun ondoren, pozten naiz berak hain argi eta garbi gauzak uztea. Benetan horrelako mozio bat aurkezteak ez du zentzu handirik, oraindik aste bete pasatu ez denean lehergailuak eztanda egin zuenetik eta ikusita zein kalte egin zituen, nahiz eta pozik egoteko arrazoiak izan, lehergailu horrek zuen helburua bete ez zelako. Mozioan ez da aipatzen, Bartzelonako udaltzaingoak Lierni Armendaritz atxilotu zuenean 50 kiloko lehergailua zeramala bere autoan. Ez dut uste turismoa egiten arituko zenik. Aspaldi honetan hainbat euskaldun gazteen artean eta gehienbat MLNV inguruko gazteen artean, badirudi kirol nagusia, teknika hoberenak pertsoneri bizitza kentzeko ikastea dela. Bereziki pertsona zehatzei. Beasaingo Udalean gaudenon artean, gutxienez bagaude bost zinegotzi, nolabait zuen erakunde maitatu horrek, aspalditik hiltzera kondenatu gaituenak. Egoera honetan, horrelako mozioa aurkezteak, ikusita Bartzelona komandoak zein pertsoneri bizitza kendu zien eta giza eskubideak aipatzea, lotsagarria da. Aspalditik galdu egin dituzue, ez bakarrik dialektikako erreferenteak baizik eta giza erreferenteak ere, zeren eta hainbat pertsoneri bizitza kendu ondoren, zuen inguruko jende batzuek aurpegia daukate egun berean manifestatzeko eta gora ETA militarra esateko. Ematen du hori ere txalotu egin behar dugula eta badaezpada ixilik egon, zeren eta ixilik ez bagara egoten badakigu ondorioak zeintzuk diren. Egoera honetan horrelako mozioa ekartzeak, ez dakit zein muga gainditzea dela iruditzen zait.”

Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Mozio honen aurrean esan, datu objetibo batzuk badaudela. Lierni zer bait egitea joango zen eta ez zen izango lore sorta bat norbaiti eskaintzea. Bestalde badakigu Beasainen zer gertatu den orain dela egun batzuk. Egoera, indarkeria eta lehen eskubideen urraketa honen aurrean, guk ezin dugu inolaz ere mozio hau onartu.”

Andoni Antxia (EH) jaunak: “Hemen esan dena entzunda gero, pentsa liteke, erabat galduta gabiltzala eta ez dugula ezta existitzeko eskubide minimorik ere . Bai PPren eta bai PSOEn aldetik esaten diren gauzak, norberak egindako errealitatearen deskripzioa besterik ez direla. Baina gustatuko litzaidake jakitea beraiek zer pentsatzen duten momentu honetan Arafat-ek zer kontsiderazio izango duen judutarren aurrean eta zer pentsatzen duten Palestinako mugimenduaren inguruan. Guretzat antzeko arazoak munduan zehar errepikatu egiten dira. Honekin aipatu oso erraza izan litekeela esatea, niri egiten dizkirate kalte guztiak eta ez dago gauza hauek egiteko eskubiderik. Bizitzan koherentzi minimo batzuk mantendu egin behar dira eta ez du balio ni oso ondo bizi naiz esateak. Bakoitzak bere arrazoiak ditu. Ez litzateke gaizki egongo noizbehinka norberak galdetzea zergatik dugun egoera hau. Guri iruditzen zaigu ez dela ixilik gaudelako, baizik eta zuek jendeari hitz egiten uzten ez diozuelako. Hemen inolaz ere ez dago benetako demokraziarik eta hiru botereen zatiketa aipatzen denean, goian galdetu egin beharko litzateke botereen zatiketa hori zertan datzan. Hasteko ikasi nork esaten zuen hori eta gaur egun ea arrastorik dagoen zatiketa horretaz. Esaten denean gure erakunde maitatu horrengan botatzen ditugula gure balorazioak, guk ere esan genezake zuen erakunde maitatua den, goardia zibilak, zuek ikusi nahi ez izan arren, oraindik ere torturatzen jarraitzen duela. Gertatzen dena da, benetako arazoari ez zaiola heltzen. Ez duguna ondo ulertzen da, hain ondo bizi zareten bitartean hainbeste haserretzea, hau da, espainolen boterearen inguruan bizi zareten bitartean. Denak ditu bere ondorioak eta hori ez da ezer justifikatzea, baina azkeneko hogeit edo hogeita hamar urteetan jende asko oso gaizki pasatzen ari da eta gehiegikeria iruditzen zaigu esatea HBn gabiltzan jendeari genetikoki sufritzea gustatzen zaigula. Gustatuko litzaike hemendik aurrera errealitatearen deskripzioa bakarrik ez egitea, baizik eta mamira joatea. Ikusi munduan dauden arazoak eta zer bide jarraitzen ari diren konponbide bat lortzeko eta ez hemendik adhesio internazionalak bidali.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Nik uste dut batzuetan argudioak bilatu beharra daukuzela eta nahiko patetikoak dira. Hainbeste astakeriren aurrean, Arafat-i begirada botatzeak edo oso ondo bizi garela esateak ez du inolako zentzurik. Azkenean galderak oso sinpleak dira. Hemen zuen munduko jende pilo batek, seme-alabak badauzkate, hamahiru, hamalau, hamabost urtekoak eta beren helburu nagusia da, hemendik kanpora ikasketak egitera bidaltzea, nolabait HAIKAn munduan ez erortzeko, zeren eta

badakitelako horren ondorioa zein den, hau da, aukera handia dutela ETaren barruan sartzeko. Hori ikusi nahi ez baduzue zuen arazoa da. Hemen herri gehiena isilik egotea eta aurpegirik ez ematea, bildurtuta daudelako da, aspaldiko kontua da. Hemen hainbat aldiz eztabaidatu dugu gaia. Miguel Angel Blanco hil zutenean, oraindik gogoratzen dut zer mozio eta jarrera hartu zenituzten. Orduan ere erabat patetikoa izan zen. Azkenean zer gartatu behar du?. Zuen etxera etorri behar dira, tiroak botatzera eta bonbak jartzera horrela ezinezkoa dela eta argudio politikorik ez dagoela konturatzeko?. Diferentzia politikoak beti egongo dira, baina bizitza ez badugu errespetatzen, zertarako ari gara politikaz hitz egiten?.”

Besterik gabe, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3 (EH)

Aurkako botoak: 10 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, aldeko botoak aurkakoak baino gutxiago izan direnez, ez da onartu Lierni Armendaritzen atxiloketari buruzko mozioa.

12- ESKAERAK ETA GALDERAK

Eskaeren eta galderen atalean ondorengoa aurkeztu da:

LEHERGAILUAK EGINDAKO KALTEAK

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak galdetu du ea jendeari berri eman al zaion, lehergailuak egindako kalteak direla eta hartu beharreko neurriez.

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Se informó a los vecinos sobre los pasos a seguir, indicándoles que prácticamente se cubrirían el 100% de los daños tanto los que tenían seguro como los que no, ya que en este caso lo que no pague el Consorcio, lo cubre el Gobierno Vasco.”

Eta tratatzeko beste gairik ezean, arratsaldeko zortziertan amaitu da bilera, eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.